

ERABAKIA, 2021eko URTARRILAREN 25ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA, 2020ko ABENDUAREN 28ko ERABAKIAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA ONDORIORIK GABE UZTEKO DENA. AZKEN ERABAKI HORREN BIDEZ INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZAKO IKTen ATALAREN ARDURADUNA LANPOSTUA BETETZEKO DEIA EGIN ZEN (UNIBERTSITATEKO LAN KONTRATUDUN LANGILEEN I. TALDEKO LANPOSTUA).

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- 2020ko abenduaren 28an argitaratutako erabakiaren bidez iragarri zen L 246 – IKTen atalaren arduraduna lanpostua eginkizunen esleipenaren bitartez aldi baterako betetzeko deialdia. Hauek dira Gipuzkoako Campuseko IKT Gerenteordetzan dagoen lanpostuen horren ezaugarriak: kategoria profesionala, IKTeko goi mailako teknikaria; espezialitatea, Sistemen Informatika; sailkapen taldea, I; dotazioa, 1; maila, 24; hizkuntza eskakizuna, 3.a; derrigortasun data, 2002ko abenduaren 31koa.

Bigarrena.- Deialdi hau eragin zuen arrazoia bertan behera geratu denez, ezin da egin aipatutako lanpostua eginkizunen esleipenaren bitartez aldi baterako betetzeko deialdia.

Aurrekoa ikusita, Gerentziak, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratudunen Plangintza Batzordearen 2017ko uztailaren 18ko Akordioa, 2017ko irailaren 28ko Gobernu Kontseiluaren bileran berretsia, eta indarrean dagoen Lan Kontratuko Pertsonal Laboralaren Hitzarmenean ezarritakoarekin bat, zerbitzuaren premiak aintzat hartuta, eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian) eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau.

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondoriorik gabe uztea L 246 lanpostua eginkizunen esleipenaren bitartez betetzeko deialdia, 2020ko abenduaren 28ko erabakiaren bidez egindakoa.

Bigarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Informazio eta komunikazio teknologien gerenteordetzari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Laugarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau jakinarazten den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2021eko urtarrilaren 25ean.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA



Miren Lorea Bilbao Arteché